

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko ekainaren 1a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Legasa** • Bertizaraneko Eguna ospatuko dute bihar, lehenbizikoz

**Luis Jabier Telletxea** • «Gizartea bezala, heriotzaren inguruko ohiturak ere anitz aldatzen ari dira»

## Argazkilariak kamara aitzinean


Maisonave hoteleko Iruña fotogalerian, Nafarroako hedabideetan lan egiten duten hamahiru prentsa argazkilariren bina lan daude ikusgai hilaren 11 arte. Biluzik ageri zaizkigu argazkilariak erakusketa horretan, benetan gustatzen zaiena erakusten baitute. Prentsaurrekoen zurrunbiloan, tarteka, argazki artistikoak egiteko parada dute. Irudi sortzaileak dira, memento-harrapariak, errealitatearen ispilu. Eta orain urte osoan egiten duten lanaren zatirik ikusgarriena erakustera etorri zaizkigu.



• JAVIER SESMA



• MIKEL SAIZ



• JESUS DIGES



• JOSE CARLOS CORDOVILLA



• JORGE NAGORE






# Iratxe • «Iragana gogoan»

Horrelaxe deitzen da Iratxe monasterioan paratu berri duten erakusketa etnografikoa

**Gaur astebete ireki zituen ateak, Iratxe monasterioan, Nafarroa etnografikoa. Iragana gogoan erakusketak. Bertan, antzinako 120 lantresna eta objektu paratu dituzte, etorkizunean Julio Caro Baroja museoa izanen denaren aurrerabide gisa.**



Iratxe monasterioan antzinako 120 lan tresna eta objektu paratu dituzte, horien artean Lizarrako gaztain saltzaileak aspaldi zerabilen karreta. • KRISTINA BERASAIN

**I**RATXE MONASTERIOKO KLAUSTRO berrian paratu dute Nafarroa etnografikoari buruzko erakusketa. Orotara 120 lantresna eta objektu bildu dituzte, belau-naldi berrien artean antzinako bizimoduak ezagutarazteko.

«Egungo bizimodua, gero eta gehiago, gailuen botoiak saketzean datza, eta sarritan gailu horien funtzionamendua ulertzeari uko egiten diogu», erran du Susana Irigarai teknikariak. «Erakusketa honekin, belau-naldi gazteei euren arbasoek erabiltzen zituzten lanabesak erakutsi nahi izan dizkiegu, antzinako bizimoduen berri iza-terakoan hunkitu daitezten».

Erakusketa lau zatitan banatu dute: *Lanak eta egunak*, *Santuak eta jaiak*, *Garai bateko lekukoak* eta *Julio Caro Baroja Museo etnografikoa*. Eltzegintzan, ezkogintzan, sarrailagintzan, zurgintzan, saskigintzan, eta bertzelako lanbideetan erabilitako lantresnak ikus daitezke bertan. Objektu aipagarrien artean, Lizarrako he-

rri-zeramika, Berako lihoa bihitzeko orrazea, Erriberako ereingailua, Zaraitzuko garijotzea edo Etxalarko lorratza. Berezia eta bitxia da 1989 urtea arte Lizarrako gaztaina-saltzaileak erabili izan zuen burdin eta letoizko karreta ere. Aipatu lanabes hauez gain, erakusketan argazkiak eta panel informatiboak ere ipini dituzte, eta ordenagailu baten bitartez objektu bakoitzaren ezaugarriak ezagutu ahal dira.

#### Museoaren zain

Irailaren 3a bitarte ikus daitekeen erakustaldia etorkizunean

Julio Caro Baroja museo etnografikoa izanen denaren aurrerabidea da. Museoaren egokitzeta lanak bi urteren buruan amaitzea espero dute, eta orduan, 10.000 pieza izanen dira ikusgai. «Etorkizuneko museoaren bildumaren zati nabarmen bat paratu nahi izan dugu jendeak ikus dezan zer izanen den Julio Caro Baroja museoa», adierazi du bertako arduradunak. «Garrantzitsua da oso orain arte gordeta egon den materiala ikusgai jartzea».

Nafarroako Museo Etnografikoa 1994 urtean sortu zen, eta

urtebete geroago bere eragile sutsuena izan zenaren izena hartu zuen, Julio Caro Baroja alegia. Barojak 60ko hamarkadan aurreneko pausoak eman zituen Bidasoaldeko baserrieta-ko tresnak jaso zituenean.

zenbait herritan eginen du ibilbidea udazkenetik aitzina. Irailean Elizondon paratuko dute, urrian Castejonen, azaroran Zangozan eta abenduan Altsasun. Gero pieza guztiak Iratxe monasteriora itzuliko dituzte, museoan jartzeko.

→ Kristina Berasain

Aiherra

Bertsulari

gazteen xapelgoa

GAUR, 10:30ETIK GOITI JOKATUKO da, Aiherran (Baxenafarroa), Iparraldeko Bertsulari Gazteen VIII. Xapelgoa. Arestian jokatu dira kanporaketak, eta bertsulari gazteek maila ona erakutsi dute. Biziki giro ona izan da Baionan bezala Hendaia saioan ere.

Azkenean bertsulari hauek heldu dira finalerat: Haurren mailan: Kanbo A (Patxi Iriart, Gillen Hiribarren, Ekhi Erremundegi), Kanbo B (Mizel Mateo, Eneko Etxegarai, Xabi Latxague), Ziburu (Maindi Murua, Odei Barroso, Ihintza Margirault) eta Hendaia A (Maddalen Arzallus, Gorka Albistur, Marga Berra). Gazteen mailan: Amets Arzallus, Miren Artetxe, Xumai Murua eta Eneritz Zabaleta.


Malerreka

Hogeita hamabi talde dekretuen kontra

«NAFARROAKO GOBERNUAK EUSKARAREN aurka daraman politika salatzeke», Malerreka 32 gizarte elkarte, talde eta kolektibok Oinarriak plattformaren idazkia sinatu dute. Hauen arabera, «herrialdeko agintariak bizkarra eman diete Nafarroako gizartearen eskakizunei, eta Administrazioan euskararen erabilpena arautzeko dekretuak karrikaratu dute, nafarrek hizkuntza eskubideak are gehiago murriztuz». Argi dute Nafarroan «euskararen aldeko jarrera zabalagoa, eta lanean jarraitzea beharrezkoa dela hizkuntza eskubideak errespetatu ditzen».

muga enea

MIKEL REPARAZ



## Haize egokiturik ezean

**A**utoa eguzkitan utzi zuen. Ezinbestean. Gaztelu plazan aski zaila izaten baita ordu horietan kotxea aparkatzea. Are zailago itzalpean. Eta sargori hartan ere, ezinbestean, hantxe utzi zuen kotxea, errukigabe. Diputazioan egin beharrekoak egin eta, paperak besapean, autora itzuli zenerako jada ez zuen erremediorik. Volkswagen zaharraren pneumatikoak Gaztelu plazako galipotari itsasirik aurkitu zituen, gazta urtua pizza gainean legez, eta kristalaren barnealdean, bolantea eta kasetak borborka. Autoaren leihatilak ireki zituen lehenik, eta infernuko aireari bide eman zion. Bolantea ukitu ere egin gabe, eserlekuan jarri zen, eta atorraren bizkarra blaitu zitzaion bat-batean. Diputa-

zioko paperak alboko eserlekura bota zituen, eta motorra martxan jarri zuen. Hemendik alde egin beharra dago, bere baitan, Carlos III. ean gora haize boladak giroa freskatuko zuelakoan. Baina Carlos III. ean gora, infernuko hauspoa atzera. Izerdia uholde bilakatu zitzaion ordurako, eta azeleragailua hondoraino zapaldu zuen, arnasa hartzeko boladaren xerka. Burua leihatilatik kanpora atera zuen, eta semaforoaren argi laranja atzean utzi zuen, eta biribilgunea gorri pasa zuen, eta burua leihatilatik kanpora, hats hartu ezinean oihuka, azeleragailua topera zapaldua, ziztu bizian, diputazioko paperak airean hasi ziren, eta eskuineko leihatilatik ihes egin zioten, haize freskoaren bila. Baina

han ez zen haize freskorik. Haizerik ere ez. Sargoria baino ez. Eta volkswagen zaharra, ke beltza zerio-la, etorbidean behera deabruak harturik bezala ikusi zuen pasatzen udaltzainak. Arrapaladan, gainbeheran. Eta udaltzain izerditsua multo eskribitzeari utzi zion, eta izerdia kopetatik kendu zuen painueluaz. Volkswagen zaharraren gidariari, bizkarra izerdi epelaz blai eta bolantea gori-gori, galipotaren gainean gazta urtuak irrist egin zion arte. Ez zuen jakin zehazki nola gertatu zen hura guziaz, baina autoaren muturra izozki kamioneta baten kontra zapalduz zegoen begiak ireki zituenerako: Helados Velasco. «Fresko asko», bere baitari.



## Bertizarana •

## Haraneko eguna lehen aldiz

Oieregiko jendea ere Legasako larunbateko bestara etortzea nahi dute

Narbarate, Oieregi eta Legasa, Bertizaranako harana osatzen duten kontzejuek euren egun handia ospatuko dute bihar, Legasan bertan. Antza denez, Oieregikoek ez dute gogo handirik bestara agertzeko, baina halere, askok hutsik ez egitea espero dute.



Bertizaraneko eguna bihar ospatuko dute, Legasan, lehenbizikoz (irudian). Gauzak ongi joanez gero, heldu den urtean Narbarten eginen dute, eta hurrengoan Oieregin. ● RAKEL GOÑI

**B**ERTIZARANEKO ZENBAIT GAZTERI haraneko eguna prestatzeko eskatu zien Udalak. Esan eta egin; denak lanean jarri ziren, eta bi hilabete geroago, bestaren bezpera iritsi da. Garai batean Bertizaranekoek ez omen zuten haranaren sentimendurik, eta gazteek ez zuten erlazio handirik beren artean. Gaur egun, Legasa eta Narbarteko gazteak oso ongi konpontzen dira, eta Udalarekin batera, sentimendu hori berreskuratu nahi dute. «Beti esan ohi da: Baztan-Bidasoa, edo Baztan, Malerreka eta Bortziriak. Eta askok uste dute Bertizko Jaurreria bera Baztan dela, baina oker dabilta; Bertizarana, Baztanen eta

Malerrekaren artean dago, eta hori jakinarazi nahi diogu jende-ari», azaldu du Joxean Subizar aurtengo egunaren antolatzaile-etako batek. «Arazoa da Oieregiko gazteak beti izan dutela Oronoz-Mugairekoekin erlazio estuago eta kostako zaiela bestara etortzea», zehaztu du Subizarrek.

Antzeko bestak egin izan dira, baina ez da inoiz Bertizaranako egunik ospatu. Antolatzaileek hurrengo urtean besta Narbarten ospatzea nahi dute, eta nahiko balute hirugarrenean Oieregin izanen litzateke bilkura. «Oieregin ez dago pilotaleku estalirik, eta hori arazo bat izan dai-

teke eguraldi txarra eginez gero, baina Narbartekoekin konpondu daitezke eguna antolatzeko» aipatu du Subizarrek. «Niri aunitz gustatuko litzaidake guztiak biltzea».

Legasan Bertizaraneko eguna bihar goizeko bederatzietan hasiko da, suziriarekin. Ondotik, nahi duten guztiak gosaltzeko aukera izanen dute. Hamarretan, futbol partidua hasiko da, eta bitartean, errekan, BKZk antolatua, piraguak ibiliko dira. 12:30ean, herri kirolak izanen dira. 14:30ean, haraneko bazkaria ospatuko da bi menu bereziak. Arratsaldeko seietan, soka-tiran ariko dira Bertizaranekoak. Zor-

tzietan, oraindik indarra duenarentzat dantzaldia hasiko da. Eta gaueko hamarretan, pilotalekuan, afora hasiko da. Besta bukatzeko, Laiotz taldearekin gupasa izanen da.

Bestaren aurrekontua 350.000 pezetakoa izango da, eta Bertizaraneko Udalak, Legasa eta Narbarteko kontzejuek eta BKZ abenturazko kirolen taldeak ordaintzen lagunduko dute. Batzordean bost gazte aritu dira guztia antolatzen, baina hauekin batera, bai aurretik bai egunean bertan, jende ugari izanen da laguntzen.

→ RAKEL GOÑI

### herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Euskaldunen Eguna eta arte plastikoak

1927. urtean Hiriberrin egin Euskaldunen Eguna berri ematen du **Guaixe** Sakanako hilabetekariak bere azken zenbakian, Arantxa Olague Etxartek sinatu artikulua bidez: «Euskararen Adiskideak izeneko euskararen aldeko elkarte batek jaia prestatzen omen zuten. Antza denez, urte hori baino lehenago ere ospatzen zen, baina euskararen eguna izenez. Elkarte horrek ia desagertarazia zegoen jaia berpiztu zuen. Eguna bakar batean denetariko ekintzak antolatu zituzten. Goizean Ihabarko Fermin

Escuderok bere txistuarekin herri osoa igaro zuen. Goiz erdian mezataria joaten ziren eta bertan Iruñeko Orfeoia egon zen. Arratsaldean, lasterketa lehiaketa jokatu zen herriko gazteen artean eta pilota partiduak, Ihabarko Escudero anaiak, Hiriberriko Arbilla Garcia anaien kontra (azken hauek irabazi omen zuten)».

**Herria** astekariak, bestalde, arte plastikoak aipatzen ditu bere artikuluetako batean azken zenbakian: «Nafarroako Arte Plastikarien Biurtekoa Donibane

Garazin beharra dugu mendekosteko aste buruan, erran nahi baita ekainaren 1, 2 eta 3an, hitzordu berezi horren bigarren edizioa, Garazikus elkarteak antolatutik. Euskal Herriko artista frangok, bai eta ere kanpoko zonbeitzuk erakutsiko dazkigute hiru egunez beren obrak: margolanak, grafiak, zizelkadurak, mosaikuak, tapizeriak eta bertze. Donibane Garazi guzia kolore desberdinez apaindua izanen da, berrogoi bat artisten obrak gure ikuspegiat eskainiak izanen baitzaizkigu».



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

### Yamaguchi Park

Txurun ta ta txun! Txurun ta ta txun! Pon pon pon! Txaanann! World Wild Life! Hola, Xabier Larraburu naiz eta nire atzean ikusten dituzuen horiek Yamaguchi Parkeko Gazte Basapiztiak dira. Gaur beroa egiten du, zinez, eta litxarrerria dendak zabalik daude; beraz, giroa ezin aproposagoa da harremanetarako. Udaberria heldu da, eta, udaberrian egiten duten legez, animalia hauek ere araldian sartzeaz daude. Gustuko baduzue, zatozte gurekin, eta ikas dezagun elkarrekin basapiztia horien ohitura bitxiak.

Txirin txon txan! Pororerorarii txan txaaaaan! Chapter 4: Lovely Spring. Kaixo berriz ere. Hementxe nago gazteen arretea ez deitzearren belar luze hauen artean makurturik. Njre inguruan, ikusiko duzue, Coca-Cola botila hustuak, piza-kaxa eta horrelako zaborberia piloa aurkituko dugu. Zaborra esan dut? Ez da zuzena. Araldian erabiltako tresnak dira hauek! Araldi dantzetako ezinbesteko bitartekoak! Amodioaren arrastoak! Kupidoren geziak! Begira bestela hango talde hura. Orain arrak Don Simon kaxa irekitzen ari dira. Neskek, irribarretsu, plastikozko basoa eskuan, itxaroten dute. Hara! Ar nagusiak menpeko arrari Don Simon kaxa kendu eta berak irekiko duela esan du! Emeek poz algaru batekin hartu dute ar nagusiaren keinu ausarta! Orain menpekoak ez du amore eman nahi eta aurre egiten dio nagusiar! Atx! Hori zartakoa jaso duena! Baina barre egiten du, hala eta guztiz ere: sumisioa gauzatu da. Coca-cola botila irekitzeaz konformatu beharko du. Agian, neguan asko jaten badu behintzat, hurrengo udaberrian bera izango da nagusia! Begira orain. Emeek gero eta ozenago egiten dute barre, eta ar nagusiar ematen dizkionte basoak eta berak bete! Gero, hutsik, belardira botatzen du, baina menpekoak Coca-Colarena basoetan hustu ondotik zakarrontzira eramaten du, gainontzekoen barre eta oihuen artean. Ez du araldi dantzaldian asmatu, eta aurten ez da inongo emerekin lotuko. Seguru asko ar bakarti bezala ibiliko da hemendik eta handik Yamaguchi Parkeko belardi zabal hauetan, bere amodioaren falta etengabe marmartuz. Akaso, beste ar bakartien talde batekin batu eta futbollean ariko da. Baina hori hurrengo kapituluaren ikusi ahal izango dugu. ●



# Prentsa argazkia

Iruña fotogalerian Nafarroako hedabideetan lan egiten duten hamahiru argazkilariren lanak daikusgai

Egunero edozein egunkaritan argazki baten azpian agertzen diren izenak baino gehiago dira. Argazkilarien lanaren alderetikoa ezagutarazteko, Nafarroako Albistari Grafikoen Elkarteak erakusketa paratu du Maisonnave hotelean. Irudi sortzaile memento-harrapariak, errealitatearen ispiluak: prentsa argazkilariek, prentsaurrekoez landara, bestelako argazkiak ere egintzela erakutsi nahi izan dute.




**Cristina Abadia**

«Europako kopako finalaren joanekoa da, Iruñean. Oso gol polita sartu zuen Richardsonek. Eskuz eta begiz apuntatzen ari da. Begia nora, baloia hara. Ordenadorean ikusi eta harritu egin ninduen. Argazkia ezabatzeare ere egon nintzen, begia itxita zuelako. Baina gero ikusi nuen apuntatzen ari zela».



**Oskar Montero**

«Arterderreta ondoan dagoen etxalde batean, baserriar batek artzain zakurrak hezten ditu. Zakurrak ardiekin eta antzarekin trebatzen ditu. Kurioso da. Eta Nafarroako artzainei erakusten die lanean. Zakurraren lur arraseko begirada hartu nahi nuen, nola ardiak izutzen dituen ongi bideratzeko».




**Joacalle**

«Nik balet edo dantza klasikoak egitea hagitx gustuko dut. Hau Gaiarre antzokian, irudi anitzeko makinarekin. Horrelako berritasun berri jolastea gustatu zitzaidan. Maria Gimenez ageri da. Argazkia publikatu gabe dago, horrelako gauza arrazkatuzte inoiz publikatzen».



**J.A. Goñi**

«Eraikuntzaren gaineko erreportaia baterako, bi enkofratzaileri elkarrizketa egiten ari ginen, eta azalerako argazki bat behar genuen. Ez genuen langile zehatz baten irudia nahi. Argazki honen marra jokoez eraikuntzako langile guztiak ordezkatzeko dituzte, eta ez langile bakarra».



**Patxi Cascante**

«Iragan sanferminetako zezenketa batean hartuak dira argazkiok (ondoko irudiarekin batera, bada beste bat apur bat lehenago egin). Lehenbizikoa, banderilleroaren eta zezenaren arteko borroka azaltzen da. Bata bestea zulatze prest dago. Bigarrenean, ondorioa ageri da, zezena banderillak zulatuta, eta banderilleroa adarrak zulatuta».



**J.M. Otxoa de Olza**

«Iruñeko La Condoneria dendaren inaugurazio eguneko irudia da. Ireki gabe zegoen, pertsiara itxita, eta nik irekitzeko eskatu nien argazkia egiteko. Orduan jendetza pilatu zen erakuslelhoia ikusteko. Barnekoa grazia gabekoa iruditu zitzaidan, kanpoan gertatzen zena interesgarriagoa zen».



**Alvaro Barrientos**

«Sei emakume begi izenburua eman diot. Pentsatzen dut burua estalita duena emakumea dela, baina ez dakit. Begirada arraroak dira, mistikoak. Iruñeko Aste Santuko prozesioan hartua da irudia. Beste leku batzuetako ospakizunak baino apalagoa da Iruñeko, baina begirada hauek hobeki irudikatzen dute mistizismo hori».

**P**RENTSA ARGAZKILARIEK HAINBAT prentsaurrekoren argazki memeloak egin behar dituzte, baina, tarteka, afizioa eta ofizioa batzen dituzte. Luis Azanza (*Deia, El País*) saiatzten da lana eta artea nahasten. «Argazkia asko interesatzen zait adierazpide gisa, arte gisa. Zorionez, lanbideak bat egiten du adierazpide horrekin». Lanean egiten duen guzia ez zaio gustatzen Jose Antonio Goñiri (*Diario de Navarra*), baina lanak zenbait egoera berezitan egotea ekartzen dio. «Orduan lantzen duzu alde artistikoa; baina eguneroko lanak ez du horretarako aukera handirik ematen. Akaso, gerrara doan agentziako argazkilariek arterako aukera gehiago dute. Baina mahai baten atzean dauden argazkia egiteak ez du zailtasun handirik». Goñiren aburuz, prentsaurrekoren ohikerian beti egin daiteke zerbait berria, oso zaila izanagatik ere. «Bi orduz egon zaitezke mahai baten inguruan bueltaka, eta nahi duzun argazkia aurkitu ez. Eta halako batean, flash, argazkia egin. Une oro egon behar duzu adi memento hori harrapatzeko. Hori da nire metodoa. Beste batzuei asko gustatzen zaie argazkiak sortzea, jendea irratzea. Niri gehiago gustatzen zait itzarotzea eta memento egokia ateratzeko».

**Argazki onaren bila**  
Maisonnave hotelean hilaren 11 arte zabalik egonen den erakusketan, Nafarroako prentsan lan egiten duten hamahiru argazkilarik (horietako hiru EGUNKARIAKOAK) bina argazki zintzilikatu dituzte. Prentsa argazki onak dira guztiak. Baina erakusketako argazkilariek ez datoz bat argazki horiek lortzeko formularen. Juan Miguel Otxoa de Olza (*Diario de Noticias*) dioenez, prentsa argazki on batzuk prestatu egiten dira, eta beste batzuk bat-batean harrapaturikoak dira. «Kontua da hor egotea, adi, zorzea izatea, eta gutieneko trebetasun teknikoak izatea». Luis Azanzak azpimarratzen duenez, berriz, «oso garrantzitsua da argazkia egin aitzin informazioa izatea egin behar duzun argazkiari buruz. Horri pazientzia eta behaketa batu behar zaizkio». Patxi Cascante (*Diario de Noticias*) dioenez, zorreak ere badu eraginik argazki ona egiteko tenorean. Horren erakusgarri da fotogalerian zintzilikatu duen argazkia: zezena banderilleroa harrapatzen. «Eta esperientzia pittin bat ere izan behar duzu, bestela ez da horrelako argazkirik lortzen», gaineratu du. Alvaro Barrientosek (AP albiste agentzia) formula egokia du: «Argazki on batek testurik gabe gauza anitz kontatu behar dizu: zer gertatu den, noiz, non, nola eta zergatik».

**Alvaro Barrientos**

«Argazki on batek testurik gabe gauza anitz kontatu behar dizu: zer gertatu den, noiz, non, nola eta zergatik»

gertatu den, noiz, non, nola eta zergatik. Egon beharreko lekuan bazau eta osagaiak biltzen badituzu, hor duzu argazki ona». Hainbeste lan egin eta gero, argazki on asko negatiboan gelditzen dira, argitaratzeko. Cristina Abadiak (Efe, *Marca*) erakusketan paratu duen Portland taldeko Richardson jolakariaren argazkia ez zen argitaratu. Ordenagailuan ikusi zuen, azkenean argitaratu zena bidali eta gero. Barrientosek lanbideko presari egotzen dio argazki on asko argitaratu gabe gelditu izana. Goñik bestelako arrazoiak ikusten ditu: «Erreportaia batzuk egiten dituzularik, erretiratu beharreko beste zenbait egoera ikusten duzu. Baina, gero, publikatzeko tenorean, kontuan izan behar da argazkia testu jakin batekin doala. Erreportaia bien arteko batuketa da. Hortaz, batzuetan argazki txarragoa aukeratu behar da, testuarekin harreman zuzenagoa duelako».

**«Ez da botoia sakatzea soilik»**  
Hau guzi hau entzun eta gero, badirudi argazkilaria izatea ez dela botoi bat sakatzea soilik. Oskar Montero (*El Mundo*, EGUNKARIA) sutsuki errefusatu du ideia hori: «Enkuadre ona bilatu behar da, besteek ez duten ikuspuntua bilatu. Akaso, jendea erakusketara bilduko da eta hemen dauden

zenbait argazki ez ditu ulertuko, ikuspuntu hori falta zaiolako, hain zuzen ere». Patxi Cascante (*Diario de Noticias*) dioenez, argazkilaritzak baditu bere zailtasunak, beste edozein ogibidekin dituen bezala. Lanbide honetako kezkarik handiena ordutegirik eza eta azken orduko deiak izaten dira. Edonola ere, hemengo argazkilarien artean arras harreman ona dago, «ezin hobea», Nafarroako Albistari Grafikoen Elkarteak lehendakari Joxe Lacalle (EGUNKARIA) azaldu duenez. «Gure artean ez dago lehia zikinik. Berdin dio zein hedabideetan egiten duen lan batek edo besteak. Gainera, sinatu gabeko akordioa dugu, zeinaren bitartez argazkilariren batek arazoak baditu argazki jakin bat egiteko, ez dago batere problemarik argazki bat emateko eta bere izenean argitaratzeko». Giro on horren eta argazkilarien lan onaren lekuko, Maisonnaveko erakusketa.

→ **Asier Azpilikueta**

**NAG**Eren erakusketa  
Lekua: Maisonnave hoteleko Iruña fotogaleria.  
Epea: Ekainaren 11ra bitartean.  
Ordutegia: Hoteleko ordutegiaren barruan.

**Erakusketako argazkilariak**



- ALVARO BARRIENTOS (AP)
- LUIS AZANZA (DEIA, EL PAIS)
- JOSE CARLOS CORDOVILLA (DIARIO DE NAVARRA)
- JOSE ANTONIO GOÑI (DIARIO DE NAVARRA)
- JORGE NAGORE (DIARIO DE NAVARRA)
- JAVIER SESMA (DIARIO DE NAVARRA)
- PATXI CASCANTE (DIARIO DE NOTICIAS)
- JUAN MIGUEL OTXOA DE OLZA (DIARIO DE NOTICIAS)
- CRISTINA ABADIA (EFE, MARCA)
- JESUS DIGES (EFE)
- JOXE LACALLE (EGUNKARIA)
- OSKAR MONTERO (EGUNKARIA, EL MUNDO)
- MIKEL SAIZ (EGUNKARIA, AS)



**Luis Azanza**

«Aznarren hauteskunde kanpainako irudia, Anaïtasuna kiroldegian egin. Kanpainaren atzeko erakusten du. Kanpaina baten gogortasun fisikoa islatzea bilatzen nuen. Dena ez da irribarre. Kanpaina fisikoki gogorra da hautagaiarendako. Niri iruditzen zait Aznarrek ez dakiela non dagoen; nekaturik dago, itota».





# Ez zaitugu ahaztuko

**Izertia.** On Xabier Arzalluzen barne sentimenduak hobeki ulertzerik izan nuen atzo. Inor ez dadila aztoratu: ez nintzen Loiolako San Inaxioren agerraldi baten lekuko izan. Besterik gabe, bas-kulara igo nintzen, eta ikusi nuen alferrikakoak izan direla azken hamabost egunotako neke eta izertiak: gramorik ez dut galdu. Emazteak eta galtzek estutu-ta abian jarri dudak Zarautz Operazioa –**Alfredo Jaimek** bezala, emaztearekin eta seme-alabekin batera urtero abuztuan bi aste igarotzen ditut **Argiñanoren** herrian– porrot egiten ari da. On Xabier bezala, mitxelinak gainetik kendu nahi eta ezinean nabil.

Saiatu, saiatzen naiz. **Txetxu Ugaldere**n pitokeriek kulunkatuta egin ohi dudak lo kuluxka nabarmen murriztuta –zein ongi zegoen gizon hori eguraldi iragarle postuan–, arratsaldero Club Natacionera jaisten naiz: egun batean sauna eta biharamunean txirrindula estatikoa –oso estatikoa: gimnasioko monitorearen arabera, haurdunentzako txirrindularitzan aritzen naiz. Burutsua, gihar-zakua–.

**Beridratazioa.** Gimnasioko begiraleak dioenez, beridratazioa funtsezkoa da kirolariarentzat. Eta Monte Carloko zerbitzari Samuelen hitzetan, beridratatzaile moduan, garagardoak, gaseosarekin nahastuta, «ez du parekorik munduan» –Astraingo balsaren eragina nabaria da Samuelen prosan–. Porroitik edanez gero, gainera, edabearen dohain beridratatzaileak areagotu egiten dira. Hartara, Club Natacionetik igotzerakoan, Monte Carlon porroi bat bete

● MIGUEL RAJMIL



Nuria Iturriagoitia, Nafarroako Gobernuako eleduna

garagardo gaseosarekin ezarriratzendut.

Samuelek dozenaka, zientoka urte daramatza zerbitzari lanetan. Horrek deustarako balio ez duten zientoka, milaka datu kaskezurreratzeko parada eskaini dio. Aurrekoan ordu erdiz aritu zitzaidan azaltzen gaztelaniazko porrón hitzak adiera bi dituela: batetik, porroi esan nahi du, mutur estuko pitxerra, eta, bestetik, hegazti bat izendatzeko balio du, murgilaria, Aythya ferina. Hori arrunta da, baina bada mottoduna, Aythya nycora, eta –**Zaldi Eroak** fama-



Zarautz, nafar askoren udalekua

tu onomatopeiak erabiliz– mar, mar, mar, eta guos, guos guos.

**Idorreria.** Murgilariaren mokokadetatik ihesi, Diario de Navarra-n bilatu nuen aterpe. Cordovillako egunkariko lehen orriari begiratzen hasi nintzen. **Nuria Iturriagoitia** Gobernuako bozeramaile berriaren argazkia zekarren. «Aurrez aurre are ederragoa da», supitoki ozenago oldartu zitzaidan Samuel. «Murgilaria?», galdetu nion zalantzakor. «Ez, konbergente, ez; bozeramailea» –**Juan Cruz Alliren** homonimo naizela eta, Samuelek zenbaitetan konbergente esaten dit–.

Samuelek –besteak beste, nik ordaindu milaka kuba-libreen laguntzaz– txalet-familiabakarrekoa –Elhuyar da, eta ez ni, hitz-elkarketa ortopedikoaren sorburu– erosi berri du Gorraizen. Itu-

rriagoitia Gorraizen bizi da. Eta biok Gorraizen ohikoak ei diren party-etako batean izan ziren aurreko batean. Zerbitzariari politikaria ederra eta jatorra iruditu zitzaion. «Badaki jendea tratatzen», nabarmendu zidan. «Oso normala da», segitu zuen aitzina. «Eta badu graziarik», gaineratu zuen...

Laudorio sorta enegarren alera heldu zelarik, eztanda egin nuen: «Seguru idorreria kronikoak jota dagoela», eten nuen zerbitzari miretsiaren mintzoa. «Seguru», berretsi zuen Samuelek. Dozenaka, zientoka urte daramatza zerbitzari lanetan, eta aski ongi daki bezeroari noiz eman behar zaion arrazoia. Beste porroi bat garagardo gaseosarekin atez zidan, hori musu truk. Jario urriko eta irudi itsusiko erregionalista baten alde edan nuen: Miguelico, zure falta sumatuko dugu.



## panpilonia zirkus

### Tonboletoa

Azaroaren lehen asteetan Codorniuren iragarkia telebistaren bidez ematen dutenean hasten dira Gabonak. Nahiz eta bozketak duela aste bi izan, urte bat aurretik hasi zen hauteskunde kanpaina EAEn. Sarasate pasealekuan, berriz, maiatzaren amaieran hasten dira sanferminak. Aurreko asteburuan inauguratu zuten tonbola. Bertako arduradun Manolo Cuestak dioenez, «Iruñean oso erroturik dagoen ohitura da. Aurten 56. urteurrena beteko du».

Tonbola bezain zaharra da Iruñeko Martin Azpilkueta karrikako Chucherias el Pasadizo kioskoa. Erregaliz gorria, limoi zaporeko flagolosina, Churruca artaleak eta Facundo pipa poltsa bat. Horrelaxe xahutzen nuen etxean jasotako

bost duroko txanpona igandero. Tarteka plutoiak ere erosten nituen. Plutoiak bai. Bi pezetaren truke boleto urdin bat. Saria 5, 10, 25 edo 50 pezetakoa izan zitekeen. Gehienetan, ordea, ezer ez. «Inténtalo de nuevo». Eta horixe bera egiteko gogoa pizten zitzaidan, baina ez nuen zentimorik. Plutoiak. Ludopatiaren lehen urratsa bizitza honetan.

Antzeko bizipenak gogoratzen ditut foruen monumentuaren aurrean guraso-en eskutik hartuta. Tonbolan, plutoien orde, boletoak. Tonboletoak. Nik zabalitzen nituen gehienetan. Ilusioaren ondoren, desilusioa nagusi. Asko jota ere, Anoz anaien kasetea edo botilak irekitzekoa jaso eta etxera isilik. «Inoiz baino

● OSKAR MONTERO



Tonbola da sanferminen benetako bezpera.

opari zuzen gehiago banatuko ditugu aurten 100 pezetaren truke: telebistak, patineteak, erlojuak eta landareak, besteak beste».

Gehienetan «Sorteo moto» irakur zitekeen garai hartako boletoetan. Orain, motoak ez ezik «10 Alfa Romeo, 25 bidaia luze, soinu kateak eta ordenagailuak ere zozketatuko ditugu».

Aukeran, nahiago izaten nuen umetan Yanguas Mirandako barraketan zegoen tonbolara joatea. «Y otra muñeca xoxona para el caballero!», etengabe errepi-

katzen zuen ahots sakoneko gizonari so aho bete hortz gelditzen nintzen. «Ziempre toca zeñores!». Hala ere, han ere gutxitan.

Caritas erakundeko kidearen esanetan «gurean saria segurua da. Beti tokatzen da. Beharrean daudenak laguntzeko bideratzen dugu tonbolako etekina. Etorrikin aldeko ekimenak bultzatuko dira aurten irabaziko ditugun ehun milioien bitartez».

Jada ez dut plutoirik erosten. Hamahiru urte bete nituenetik ez naiz joan tonbolara. Famili arteko giroa da nagusi bertan. Betiko iruindarrak. Jende langilea. Arratsaldero antolatzen diren kultur ekitaldiak ikusi eta, bidenabar, boleto zenbait erosten duena. Manolo Cuestak dioenez, «Nafarroako Gobernuako kontseilariak eta Iruñeko udal zinegotziak ere urte oro gonbidatzen ditugu, baina hauteskunde garaian bakarrik azaltzen dira».



# Luis Jabier Telletxea

DONEZTEBEKO BEILATOKIKO LANGILEA

## «Heriotzaren inguruko ohiturak anitz aldatzen ari dira»

### soslaia

Orain 14 urte sortu zen, Lesakan, Malerreka enpresa. Hiletetako zerbitzuak eman zituen hasieran, eta poliki-poliki zabalduz joan da. Gaur egun, Irache taldearen barrenean dago, eta Baztan-Bidasoa eskualde osoan egiten dute lan.

Zerbitzuen etengabeko hobekuntzan dihardute, eta epe erdira tanatorioa zabaldu nahi dute eskualdean. Irache talde handiarekin elkartuta, onurak bi aldeentzat izan direla uste du Luis Jabier Telletxeak. Orain arte eskuragarri ez zituen ikastaroak egin ahal izan ditu, eta lanbideko alderdirik zailenei aurre egiteko hainbat lezio ikasi du.

Tradizionalki nekazari eremua izan denean, zenbait ohitura aldatzea gehiago kostatzen da, baina etxebizitzaren ezaugarriek ere zerikusia badute. Gero eta gehiagok paratzen dute zerraldia beilatokian, erosotasunagatik batik bat.



Joan den astean ireki zuen Malerreka enpresak, Irache taldekoak, beilatoki berria Donezteben, eskualde guztiko jendeari zabalik. Beran dagoen udal beilatokia zen eskualde osoan bakarra, eta Doneztebeakoak osatuko du eskaintza, zerbitzu gehiagorekin.

**H**ERIOZTA GERTUKO KONTUA izan arren, isilean dagoen gaia da. Jendeak ez du heriotzaz hitz egiten, eta sarritan, gaizki ikusia ere badago. Hau guztia, hala ere, aldatzen ari dela uste du Luis Jabier Telletxeak.

■ **Doneztebeako beilatoki honek zein zerbitzu eskainiko du?**

Alor honetako zerbitzu guztiak eskainiko ditu Doneztebeako beilatokiak. Ez da derrigorrezkoa, gainera, hemen edukitzea hildakoa; etxean eduki nahi duenari ere gainerako zerbitzu guztiak eskaintzen dizkiogu. Etxeetan, eta batez ere pisu tikietan bizi direnei aretoa ere prestatua diegu. Kanposantuko moldaketa, oroigarriak egin, eskelak, gestoriako paperak, loreak... guztiaz arduratzen gara.

■ **Eskualdeko lehenbiziko beilatoki pribatua izanen da hau. Zuen zerbitzua eskualde osora hedatzeko asmoa duzue?**

Bai. Berako Udalak duen beilatoki tikiarekin eta Doneztebeako honekin osatu nahi dugu. Udan Elizondon bertze bat egin nahi dugu, eta Lesakan ere za-

«Gure asmoa zerbitzu guztiak bilduko lituzkeen tanatorio bat egitea litzateke, Nafarroako mendialderako»

baldu nahi genuke aitzinera begira bertze bat. Nahi duen guztiarentzat dago zabalik beilatoki hau. Gure asmoa zerbitzu guztiak bilduko lituzkeen tanatorio bat egitea litzateke, Nafarroako mendialderako. Horrela, enbalsamenduak, talatopraxiak egin ahal izanen genituzke. Doneztebeako ere prestatua dago hori guztia egiteko, baina oraindik ez gara hasi.

■ **Jendeak beilatokietara joateko ohitura du, edo oraindik etxean edukitzea da ohikoena?**

Baserrietako jendeak etxean eduki nahi izaten du, baina herri handienetan, Beran, Donezteben, Lesakan... jendeak gero eta nahiago du horrelakoetan eduki familiakoa, pisuak tikiak direlako, eta etxera joan eta la-



● OSKAR MONTERO

sai egoten ahal direlako. Kopuru zehatzik ez dut, baina Beran, adibidez, hamarretik zortzik beilatokira eramaten dute gaur egun. Jendeak hagitx ongi hartu du proposamena. Doneztebe, gainera, erabat zerbitzu herria da, eta horrelako zerbitzu bat ere behar zuen.

■ **Heriotza, hala ere, gai tabua da gaur egungo gizartean.**

Bai. Jendea isilik eta gordeka ibiltzen da. Hau bertze edozein zerbitzu bezalakoa da, guk es-

kaini egiten dugu, eta jendeak nahi duena hartzen du. Enpresak 14 urte daramatza lanean, eta jendea zerbitzuarekin konforme da, ez da arazorik sortu. Une horretan erraztasunak eman behar zaizkio jendeari, ahalik eta lasaien egon dadin.

■ **Hildakoen inguruan ohitura anitz zegoen garai batean. Horiek galtzen ari dira, ezta?**

Galtzen ari da. Baserrietan mantentzen da gehien, eta eskualde honetan guztian baserri

anitz badira oraindik. Hala ere, gauza guztiak aldatzen ari dira, gizartea aldatzen ari da, eta horren parte da heriotza bera ere. Loturik doaz biak.

■ **Gutien aldatu den ohitura, hala ere, hileta elizkizuna eta lurpean hilobiratzeta izanen da, ezta?**

Bai. Bere burua ateo aitortutzat duten anitzek ere horrelako elizkizunekin bukatu dute. Saihetsezina da, neurri handi batean. Hala ere, gero eta

gehiago errausten da. Joan den urtean eskualdean zazpi edo zortzi pertsonak aukeratu zuten erraustea, gainerako guztiak lurpean sartu ziren. Garai batean Errenteriarra eramaten ziren hermendik, baina orain guztiak Iruñera eramaten dira, merkeagoa da eta. Iruñean pilaketa handia izaten da, baina Irache taldeak bertze errauste planta bat paratzeko asmoa badu, eta horrek gauzak anitz arinduko lituzke.

→ Jon Abril



**NAFARROA**  
Kapitaina  
ETA PETILLA  
KOMANDANTEORDEA

-Asperen-



## Nafar Kronika

Martxelo Sotes

### La vieja Iruña

**B**ai, horrela deitu izan diote beti gure hiriburuari edozein komunikabidetan. Espainolistetan ere bai. Nonbait, artikulu berean Pamplona horrenbeste bider ez errepikatzearen erabiltzen duten formula da. Beraz, Cordovillako Inpartzialean ere, noiz edo noiz hiriaren euskarazko izena erabiltzen dute literatur baliabide bezala. Aleluia.

Hala eta guztiz ere, kezkatzen hasia naiz. La vieja hori ez al da despektiboegia? Pamplona, ordea, ez da oso izen modernoa. Galdegin diezaiotela On Ponpeiori.

Betidanik Donostia estetikoki ederra izan da, Europara begira egon den hiria. Hala aitortzen diote danborrari easotarrek, harrotasunez. Harrotasunaz ari garela, Bilbok ere harreman handia izan du betidanik Ingalaterrarekin. Edo, hobeki esanda, ingelesek Botxokoekin harremana izateko zortea eduki dute aspalditik. Jaurlaritzak Gasteizen ezarriztean gorakada izan zuen hiriak. Eta Iruña?

Behin Orioko lagun batek Iruña atzeratuta gelditu dela esan zidan. Hiri grixia iruditzen zitzaion aldameneko erkidegokoekin alderatuta. Haseran sorpresaz hartu nuen lagunak esandakoa, gero amorruta, zuzen ez ote zen ibiliko pentsatu nuenean.

Baina zaudete lasai. Ez dugu Guggenheimik, ez eremu teknologikorik, ezta Kursaalik ere. Baina igual zaigu, Bartzinofis I.ak, bere aintzindarien ereduari jarraituz, zaharberri-tze faraonikoak egingen dituelako.

Ezaba ditzagun konplexu guztiak. Bilbotarrak metroa edukiko dute. Baina ba al dute alde zahar guztia zeharkatzen duen babesleku atomikorik? Ez. Donostian Igeldora igotzeko funikularra daukate, eta? Guk hemendik gutxira Arrotzapetik Descalzos kalera joanen den igogailu praktikoa izanen dugu. Funtzio bikoitza izanen duena: jendea igotzeaz gain, jaitsi ere egingen baitu. Igogailua eta jaitsigailua batean! Ufa! Eta parke teknologikorik behar al dugu guk? Ez. Guk Europako inbidia eraginen duen agiritzia izanen dugu. Alde zaharrean bertan. Esako urtegiaren presa txiki utziko duena.

Zaudete lasai, aurki hiririk modernoenan biziko gara eta: *La super moderna Iruña*.

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Zangoza:** Gaur, pop-rock lehiaketaren barruan, A Quemarropa taldeak Dos Caballos tabernan joko du 23:00etan, eta Zwolle taldeak Blues tabernan, 00:00etan.
- **Tafalla:** Bihar, Blanca de Navarra maketa lehiaketaren barruan, El Culpio Asesino eta Nahikoa Da taldeek Gabalzeka tabernan joko dute, gaueko hamabietatik aurrera.
- **Iruñean:** Ostegunean, Mikel Errazkinen Erraldioen Txokoa kantatuko du, 20:30ean.

### BERTSOLARIAK

- **Hendaia:** Igandean, 12:00etan, bertso saioa egingen dute Ezker Paretan Maddalen Arzallus, Marga Berra eta Kristiñe Txoperena bertsolariek.

### KIROLA

- **Erratzu:** Igandean, Baztango VIII. Mendi Ibilaldia egingen dute, Erratzutik Erratzura (34 km.). Argibideak eta izen emateak: 948-581279 (Elizabeth).
- **Altsasu:** Hilaren 10ean jokatuiko den VI. BTT Zeharkaldian izena alde aurretik emateko epea bihar akituko da. Izen ematea: 948-467496 eta 948-562991.

### ANTZERKIA

- **Burlata:** Asteazkenean, haurrentzako magia saioa, Heriz magoaren eskutik. Ondoren, txokolate jatea.
- **Burlata:** Asteazkenean, Zirko Ttipia taldeak *Hiruek* helduentzako antzezlana taularatuko du 20:00etan Axular elkartearen.

### HITZALDIAK

- **Etxarri Aranatz:** Gaur, ESAITen eskutik, euskal selekzioaren inguruko mahai ingurua izanen da 20:30ean kultur etxean.

- **Burlata:** Astelehenean, Jon Gurutzia gaur *Nafarroako haran hezetsuak* ikus-entzuneak eskainiko du 20:00etan Axular elkartearen.

### LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Abian da sanferminetako barraken egitaraua iragartzeko kartelen lehiaketa. Kartelak *Barrakak gure alternatiba* leloa bildu behar du eta, halabeharrez, zati zuri bat izan behar du gero kontzertuen berri emateko. Lanak, ekainaren 12a baino lehen, Iruñezar euskaltegian entregatu behar dira, barraken batzordearen izenean.

### BESTAK

- **Ibiltzietak:** Bihar, Zaraitzu ibararen eguna: Dianak Egoak txarangaekin (10:00); Zaraitzuko musika eskolaren kontzertua (12:30); Burlatako Larratz dantza taldea eta Gaiteoren eskolako ikuskizuna (13:00); kalejira (13:30); herri bazkaria (15:00); dantzaldia Mamba Negra orkestrarekin (19:00); txistorrajatea eta musika emanaldia (22:30); gaupasa (01:00). Egun osoan, haur parkea eta ikastaroetako erakusketa Kontzejuko lokaletan.
- **Etxarri Aranatz:** Bihar, ofizialtasunaren aldeko euskal jaia: Txan-

treko zantantzarra (11:00); Herri kirolak Urdain, Arbizu eta Etxarri artean (12:00); bertso bazkaria plazan, Jokin Sorozabal eta Unai Agirrerekin (14:30); kontzertua (22:00); akelarrea (00:00). Egun osoan: herri mugimenduen azoka, sargardoa eta taloa.

### BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Bihar, larunbatearekin, euskarazko herri meza egingen dute Jesuiten Elizan (Bergamin, 32), 18:45ean. Bertan San Fermin ikastolako abesbatzak parte hartuko du.

OSKAR MONTERO



## Nahi eta ezin

Miel Saralegi 330 kiloko harriztarra jasotzen saiatu zen iragan larunbatean Orkoienen. Baina ezin izan zuen jaso. Zoritxarrez, NAFARKARIAren zurbelztasunak leitzararen esfortzua apaldu du. Izan ere, ikustekoa zen Saralegiren aurpegi gorritua. 330 kilo. Gorritzeko modukoa. Horrelako indar erakustaldiak ikusita, zertarako balio ote duten galdetu beharko genuke akaso. Nora garamatza Saralegiren harri-jasotzeak? Saralegi Tolosan saiatuko da berriz ere, euskal selekzioaren aldeko jaiaren barruan. Nahi eta ezinaren apologia egiteak zertarako balio ote duen galdetu beharko genuke akaso honelakotetan. Nora garamatza EAEko azpiegiturak soilik erabiliz nazio egitura sortu nahi duen ekimenak?